

## **APARTEKO OSOKO BILKURA**

**2016.03.07**

Tolosako Udaletxean, 2016ko martxoaren 7an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ezohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 7 de marzo de 2016, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión Extraordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegui Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente  
Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Pedro Manuel Etxabe Zabala

Idazkaria:  
Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko kontuhartzailea:  
Paulino Alonso Eraso

### **Eguneko gaia zerrenda**

1. Martxoaren 8ko adierazpen instituzionalaren onarpena (Udalerrri eta Eskualdeetako Gobernuak bat egin dute Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunaren alde, Europan eta Munduan).
2. Udal politiketan genero-zeharkakotasuna

### **Orden del día**

1. Aprobación de la declaración institucional del 8 de marzo (Gobiernos locales y regionales juntos en favor de la igualdad de mujeres y hombres en Europa y en el Mundo).
2. Ratificación de la estrategia para la

txertazeko estrategia berrestea.

implementación de la Transversalidad de Género en la Políticas Municipales.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1. Martxoaren 8ko adierazpen instituzionalaren onarpena (Udaleri eta Eskualdeetako Gobernuak bat egin dute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alde, Europan eta Munduan).**

**1. Aprobación de la declaración institucional del 8 de marzo (Gobiernos locales y regionales juntos en favor de la igualdad de mujeres y hombres en Europa y en el Mundo).**

Partehartzeak:

... Onintza Lasa Arteaga (EHBILDU): "Martxoak 8 aldarri eguna da eta leku guztietan esaten den bezala, baita ere salaketa eguna, ez ospakizuneko, zoritxarrez; salaketa eta aldarrikapen eguna. Gogoratu behar dugu 1908ko martxoaren 8an, New Yorkeko fabrika batean zituzten lan baldintzak eta soldata kazkarrak eta miserableen aurka altxaturiko 46 emakume erre zituztela. Data beltz horrek emakumeen eskubideen aldeko egun bilakatu zuen martxoaren 8a. Berriz ere, gaur egungo krisi testu inguru honetan, emakumeak dira egoera gogorrena pairatzen dituztenak. Etengabe egun hauetan, bai soldaten diferentziak eta etxeko lanean pasatzen duten denbora, etengabe daude datuak berresten egoera okerre emakumeak eramaten duela, bai enplegu prekarioei dagokienean, bai lan berdinekin gizezkoek baino soldata baxuagoak jasotzen dituztelako, e.a.  
Martxoaren 8a, beraz, egunero da, baina inoiz ez zaigu ahaztu behar festa eguna baino borroka eta aldarrikapen eguna dela: emakumeak beren eskubideen alde altxa zirenekoak gogoratu nahi dugulako eta eskubide horien aldarrikapenagatik erre zituztelako. Udal gobernutik, eta, azken batean, batzordetik proposatzen zen bezala, salaketa. Oso argi utzi behar dugu hori. Efemeride hauek, egun, gogoetak egiteko abaguneak izaten dira, baina jarduna, ordea, urte guztirako jarduerak izan behar dute, eguneroko lana da. Eta horregatik, hasiera batean, EHBildutik gure mozio propioa aurkeztu genuen ulertzen dugulako gauzak egiten diren arren konpromiso irmoak hartu behar direla; benetazko inplikazioa eskatu behar zela: egun hauetan hartzen diren konpromiso formalak gero egunerokotasunean lantzen jarraitu. Emakume eta gizonen artean desoreka dagoela nabarmena da, arlo askotan. Egia esan, behin eta berriz esaten ditugu, errepikatzen diren diskursoak oso antzekoak izaten dira, baina gero egunerokotasunean zifrak oso berdintsuak izaten dira. Hau da, gauzak aldatuko dira, nola ez, baina beti ere desberdintasunak hor daude. Beraz, oso hitz potoloak erabili arren, egunerokotasunean ez dira hain errez aldatzen egitura matxistan oinarrituta dauden gizarte bateko ohiturak. Gure testuan aipatzen dugun bezala, 1908 jada emakume batzuk ari ziren borrokan, orduan borrokatu zuten eta gaur ere jarraitu beharko dugu lan eremuan, aisialdian eta beste hainbat eta hainbatetan, gizartearen inertziak ere atzerapausoak ahalbideratu ez ditzan. Eta saiakera serioak egiteko neurriak egunerokoak eta ausartak izan behar dute; behintzat EHBildutik horrela planteatzen genuen mozioan eta horrela jasota dago orain ere. Egiten ari den guztia, hirugarren plangintza eta guzti hori, ondo dago, baina zer gehiago egin dezakegun pentsatu behar dugu. Hasierako testua aberastua izan da. Zertan? Bisibilizazioa ariketan. Emakumeek bere papera izan dute

historian zehar. Ez ziren nahi adina izan, nahi zuten lekura iristeko, beren kontestu historikoak horrela oztopatzen zielako. Baina emakumeak izan duen bere paperari aitortza egin behar zaiola iruditzen zaigu. Badago plaza bat aurreko legealditik, kale bat badago edo bere lekua ere badu Agirre medikuak. Hortik jarraitu behar dugula iruditzen zaigu, nola edo hala emakumeak izan duten balioa aitortu egin behar da, bisibilizatu eta aitortza bat egin behar zaio. Non egin eta nola egin ikusiko dugu, baina lekuei izen berria jartzerakoan kontutan eduki behar da. Beste gaia bat, emakumearen etxea da, aspaldiko gure aldarrikapena. Guretzat ezinbestekoa da gune bat, espazio bat edukitzea betaurreko moreak jarrita edukiko dituen, edozein ariketa edo jarduera aurrera eramateko. Guretzat oso garrantzizkoa da eta horrela aipatu dugu batzordeetan. Testuan jartzen du definizioaren jarraitu; ez dugu inongo definiziorik, baina etxearen konzeptua argi edukitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Baita Protokoloarekin jarraitzea ere, jabekuntza eskolarekin. Eta nola ez, antolatu diren jardueratan parte hartzea oso inportantea iruditzen zaigu eta beste erakundeei deitzea konpromisoak har ditzaten. Mozioaren nondik norakoak jasota, prozesuaren inguruan gogoeta bat egin nahi nuke, zintzotasun osoz, baina egin beharrekoa. EHBilduk batzordean beti era eraikitzaile, era positiboan aritu izan da. Borondatea horrelakoa izan da behintzat. Eta azken adibidea, erasoan salaketa moduetan oihartzuna handiagoa izateko taldeekin hitz egiteko proposamena. Batzuk berdintasun batzordean, beste batzuk lñauterietako balorazioaren bileran, eta edozein lekutan esango genuke, iruditzen zaigulako gure herriaren onurarako ekimen bat suposa dezakeela eta gure lana delako. Baina, hori esanda, bai esan behar dut benetan minduta sentitu garela, eta baztertuak. Ez dakit zer kalifikazio erabili, baina bai oso takto gutxia adierazi izan duena. Forma kontua izan daiteke. Martxoak 11ko ekitaldia, hainbat ekintza daude eta guri, EHBilduri, hitzik ez zaigu geratzen kalifikatzeko nola kudeatu den gai gau. Forma kontuak baina haratako, gauza espezifikoko bat gehiago dela iruditzen zaigu, kode politikoetan sartuta dagoena, eta zinez esan behar dizugu, nahiko arrazoi iruditu zitzaigula mozioari ezezko borobil bat emateko. Ondo baloratu ondoren, baietza emango diogu mozioari, baina uste dut gogoeta egin behar dela forma kontu horietan, kontu haundia edukitzeko eskatzen dugu. Eta besterik gabe, baietza emango diogu mozioari baina formak zaintzeko eskaera egiten dugu.”

Maite Ruiz de Egulaz Ezkiaga (EAJ-PNV): “Guk batzordean martxoaren inguruko programa aurkeztu genuen eta bertan martxoaren 11n, Miren Urkolaren oroimenez kontzertu bat egiteko lantzen ari ginela esan genuen eta, zerbait nahi bazenuen esan, esateko. Ez zen ezer esan ez momentu horretan, ez ondoren. Agian ez ziren izango formak egokiak eta espero dugu ez gertatzea berriro, baina formaz hitz egin nahi baduzu zuen formak ere ez dira oso onak izan mozia aurkeztu zenutenean. Mozioa bidali genuen otsailaren 24an, 7:45etan, eta erantzunik ez genuen jaso. Pixkat bat beranduago zuena aurkeztu zenuen, otsailaren 24an, 15.00etan, email batez zuena sartuta zegoela udaletxean jakin genuen. Gurekin harremanetan jarri gabe. Gero, otsailaren 25ean, mozio bateratua ateratzeko nahian bidali genuen mozio berri bat. Erantzunik ez genuen jaso eta nik deitu nizuen. Zuen erantzuna: oraindik begiratu gabe zenutela eta asteburuan begiratuko zenuela. Baietzkoa eman zenioten aldaketa batekin, guk gune esaten genuena, zuek etxea jartzeko eskatu zenuten. Hori aldatuta konforme. Zuen formak ere oso onak ez ziren izan. Berdintasun batzorderako kide guztiek adierazten duena alde batera utzita, datu batzuk ematea gustatuko litzaidake.

- Emakumeen batezbesteko diru sarrerak gizonenekin alderatuta % 59,9a dira soilik (14.426 euro emakumeek, eta gizonen 25.414 euro).
- IBEX 35-ean burtsan, kotizatzen duten enpresa euskaldunen zuzendaritza kontseiluetan

- parte hartzen duten emakumeak %30a dira.*
- *Emakumeek gizonezkoek baino 3,4 ordu gehiago ematen dute etxeko lanetan, egunero.*
- *Emakumeen artean, euskal udalerrietan % 42,6 dira hautetsiak, alkateak aldiz %18a.*
- *laz 5.124 izan ziren emakumeen indarkeria sexistagatik biktimizatuak eta horietatik 3.990 genero indarkeriagatik, horien artean, 30 urte edo gutxiagokoak %34a, dira eta %51a 31 eta 51 urte bitartekoak.*

*Nahiz eta berdintasunaren alde egindako bidea eraginkorra izan, ezin eta ez dugu nahi ahaztu, oraindik asko falta dela egiazko berdintasuna lortzeko.*

*Behin eta berriz, lana etxean asten dela errepikatuko dut. Eta Udaletxean lanean jarraituko dugu berdintasuna lortu arte, azken finean Udaletxea denon etxea da eta”.*

- ... Alkatea, Olatz Peon Ormazabal: *“Martxoaren 8a da egindako ibilbidean hausnarketa egiteko aukera ematen duena. Adierazpen instituzionalean aipatzen da Tolosan badagoela hirugarren berdintasuna plana burutu behar dena. Baina baita azpimarratu nahiko nuke ere Hezkidetza proiektua, Tolosako ikastetxeak izugarriko lana egiten ari direlako gai honen inguruan. Martxoaren 8a da, baita ere, aldarrikapen eguna: emakumeek gizarteari egiten diogun ekarpenaren aitortza, hau da, gizon emakumeek osatzen dugun komunitatean balio ordezkaezina dugula onartzen dugu egun honetan. Balioa pertsonari zor zaion errespetuan oinarrituta, eta eraikitakoa da eta, gainera, balio demokratikoari mamia emango diona. Horrela, emakumearen ekarpena maila guztietan ematen da ongizatean, ekonomiaren aurrerapenean, kulturaren balioan, herrien eta nazioen lorpen politikoa, baina aitortza hau modu naturalean eta espontaneoan ez da ematen; estatistikak isladatzen digu errealitatea zein den. Hemen datu batzuk ematen dira. Egia dena da, mundura emakumea edo gizon sortua izan, aldea nabarmena dela. Esate baterako, eskualdeko langabezi altuei erreparatzen badiogu, eremu pribatu zein publikoetan, gizon emakumeak rol jakin batzuen arabera sailkatzen gara. Eta gizarte honek hau modu akritikoan onartzen du, nahiz eta egia den, baita ere, pixkanaka hainbat aldaketak ematen ari direla. Oraindik ere, langabezian dauden pertsonak lan mundura inguratzen direnean emakume gehientsuenok, ia, ia denak, zerbitzu sektorea lan mundura inguratzen direla, gizonak, berriz, industrira, eta batean eta bestean lan baldintzen aldea izugarria da. Etxeko lanen banaketan, genero ikuspegitik aurrerapena ukaezina da estatistikak begiratzen baditugu, baina oraindik ez gara paregabeak. Eta zaintza begiratzen badugu, oraindik desoreka handiagoa da. Bizi garen teknologia berrien gizarteak ahalbideratu du, azpimarratuko nuke gehiago nerabeen artean, bikoteen artean jazarpen kontrol eta menperatze jarrerak areagotzea. Eta bultzatu beharko lukeena da errespetuan eta askatasunean oinarritutako harremanak izatea. Eta desoreka guztien oinarri dira gertatzen diren genero indarkeriaren jazarpenak. Hemen aipatu nahiko nuke Irungo kasua eta baita ere Barakaldokoa. Biharko Nazioarteko Emakumeen Egunak aukera ematen du errespetuzko harreman juxtuak aldarrikatzeko, etxean, lanean eta baita kalean ere. Emakumeak eskubidezko sujetoak garelako eta gizarte demokratiko eta aurrerakoa izateko oinarritzkoa delako emakumeen partehartzea gizarteko alor guztietan. Bide batez, eskerrak eman nahi nizkieke, eta zoriendu parekidetasun saileko teknikariari, burutu eta landu duten egitarau guzti honengatik; baita ere batzordeburua eta batzordean parte hartzen duten kide guztiei. Martxoaren 11ko ospakizuna ez du uste politizatze gaia denik: hitz egingo dugu, zuzenduko dugu, baldin badago zuzendu beharrekoa eta, beraz, bozketara pasako gara”.*
- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU): *“Lehengo gauza, ez dugu polemizatu eta ez dugu polemizatu nahi, baina errespetu falta iruditzen zait, eta da. Errespetua mundu guztiari zor zaiona: iraingarri iruditzen zait konparatzea mozioa noiz bidali den eta gure kide bat, lagun bat, hainbeste aldiz gurekin egon dena, gai hau bizi izan duena. Eta ez dugu inondik inora*

*esaten omenaldia egin behar ez zenik, merezi ditu mila. Errespetua diogu bere lagun eta kide izan garen neurrian; dei bat besterik ez genuen eskatzen, beste guztiakin jada kaletik enteratzea baino. Ez dugu polemizatu nahi, nola hori nahiko dugu! eskatzen dugu errespetu bat, harekiko, gurekiko. Formak, hain inportante diren formak, egiten dena bezain inportanteagoa. Gizarte patriarkatu batean bizi gara, bortitza, agresiboa eta forma horiek dira horren erakusle. Horregatik eskatzen dugu errespetua, gizarte feminizatu bat nahi dugula eta forma horiek alde batera utzi behar ditugula, eta takto hori izan behar dugulako, humanizatzea eskatzen dugula. Eta hori da sentitu ez duguna, eta horregatik hemen, guk, gaur, salaketa; baina niri min eman dit. Gauza da, mina sentitu dudala, dugula. Mina sentitu nuen kanpotik jakin nuenean. Polemizaziorik gabe, eta jarraituko dugu hitz egiten, baina formak eta errespetua gakoak dira.”*

... Alkatea: “Miren Urkola gogora ekartzeko proposamena, sailetik beretik atera zen, omenaldi handi bat baino gogora ekartzea zena, Mirenek hori baino gehiago merezi zuenez, ez bakarrik sailean bertan burututako lanarengatik bakarrik, baizik berak sailean utzitako hutsunarengatik. Beraz, hitz egingo dugu eta zuzenduko ditugu izandako gabeziak.

-----

Adierazpen instituzionalak honela dio:

*“Udalerri eta Eskualdeetako Gobernuak bat egin dute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alde, Europan eta Munduan*

*Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrek adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarritzko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuak herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak Europan eta mundu osoan sustatzeko.*

*Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, 2016ko martxoaren 8an, tokiko eta eskualdeetako gobernuen ordezkariek helburu hauen inguruan elkartu dira:*

*Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan –tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonen parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan;*

*Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarritzko elementua dela berma dezatela eskatzea estatuetako gobernuen eta Europako instituzioen; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da;*

*Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat har dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez;*

*Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkrituak har ditzatela eskatzea*

*Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuari ematen zaizkien botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskain ditzatela.*

*Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak;*

*Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sor ditzatela eskatzea estatuetako gobernuari eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berrets dezatela eskatzea gobernu nazionalari;*

*Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozte;*

*Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakuts dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.*

*Gainera, horregatik guztiagatik, Udal honek honako erabaki hauek hartzen ditu:*

*Udal politiketan berdintasuna zeharkakotasunez indartzea, Tolosako Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako III. Planean jasotako neurrien garapen, jarraipen eta ebaluaziorako behar diren giza-baliabideak eta baliabide ekonomikoak bermaturik.*

*Jabekuntza-eskola indartzea bertan parte hartzen duten emakumeek beren espazioak eta tresnak izan ditzaten, eta beren harremanak eta sareak (gazteak, helduak, migratuak, nortasun, sexualitate eta ahalmen desberdinetakoak, e.a.) sendotzeko, desberdintasunei eta indarkeria matxistari aurre egin diezaieten modu autonomoan.*

*Prozesuak bultzatzen jarraitzea, emakumeen partaidetza aktiboa izateko festa-izaerako jardueretan eta eremu soziokultural guztietan. Tolosako emakumeen aztarnak ikusarazten jarraitzea, kale-izenak, monumentuak eta artearen errepresentazioak aztertuz. Emakumeentzako etxearen definizio lanarekin jarraitzea, herriko emakume eta talde feministarekin elkarlanean, eta abar.*

*Berdintasun Batzordea indartzea, berdintasunezko udal politikak garatu eta segimendua egiteko, eta sustatu emakumeen elkarte, mugimendu feminista, ikastetxe eta berdintasun-jarduerak bultzatzen dituzten herriko taldeen partaidetza.*

*Hezkidetzeta Proiektua garatzen eta Mahaia dinamizatzen jarraitzea, ikastetxeekin elkarlanean, eta, orobat, Beldur Barik eta Hi Haiz, hi! Programak, non sustatzen diren berdintasunean oinarritutako sexualitateak, nesken jabekuntza eta mutilen eginkizuna berdintasunezko harremanen alde, eraso mota guztiak prebenitzeko asmoz.*

*Bukatzeko, Udalak dei egiten du, martxoaren 8an, Tolosan, emakume eta talde feministek deitutako mobilizazioetan parte hartzera.”*

Jarraian, adierazpena bozketara jarri ondoren, aho batez, **ONARTU DA**

Lore Agirre Zipitria, EHBILDUko zinegotzia irten egin da.

**2. Udal politiketan genero-zeharkakotasuna txertazeko estrategia berrestea.**

**2. Ratificación de la estrategia para la implementación de la Transversalidad de Género en la Políticas Municipales.**

... Partehartze atalean, hasteko Agurtzane Zubero Agirregomezkorta, Berdintasuna teknikariak, estrategiaren nondi-norakoak azaldu ditu:

*“Udal politiketan genero-zeharkakotasuna ezartzeko eta sustatzeko estrategia dela-eta, Miren Urkolak 2013ko uztailaren 23ko Osoko Bilkuran aurkeztu zuen gaia, bertan onartzeko. Baina zer da genero ikuspegia edo genero zeharkakotasuna integratzea edo txertatzea?*

*Euskadiko berdintasun legearen printzipio orokor bat da.*

*Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta behar desberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika planean, programan eta ekintza guztietan eta maila guztietan (politiko, tekniko eta administratiboan) eta horien plangintzan (diseinatzen, garatzen eta ebaluatzen direnean) kontuan izatea, ezberdintasunak ezabatzeko eta horrela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.*

*Barne arautegi bat ere onartu zen, proiektua garatzeko, eta haren jarraipena egiteko lan batzordeak sortzeko eta haien eginkizunak ezartzeko.*

*Berdintasun Batzordea: proiektuaren lidergoa. Jarraibide estrategikoak zehaztu, bultzatu, kudeatu eta ebaluatzen ditu.*

*Barne koordinaziorako Batzordea (departamentuburuak daude).*

- *Berdintasun Batzordean zehaztutako ekintzen hedapena erraztea eta bultzatzea du helburu.*
- *Departamentuetan aurrera eramango diren jardueren jarraipena eta kontrola izatea.*
- *Interlokuziorako izendatzen duten pertsonal teknikoaren izendapena berrestea.*
- *Pertsonal horrek proiektua garatzeko beharrezkoak diren aurrekontu baliabideak, prestakuntzak eta ebazteko ahalmena esleitzea.*
- *Eta genero-zeharkakotasunaren inguruan antolatzen diren prestakuntza saioetan parte hartzea.*

*Solasaldirako edo interlokuziorako pertsonak (departamentu bakoitzetik bat izendatzen da).*

- *Proiektuaren garapena eta prestakuntza saioetan parte hartzea eta eskuratutako ezagutzak, esperientziak eta tresnak departamentuko pertsonalari helaraztea.*
- *Era berean, Berdintasun Departamentuarekin solasean eta lankidetzan aritzea, Udaleko beste departamentuetako pertsonal teknikoarekin koordinatzea, eta abar.*

*Estrategia hau hasieratik jo zen epe labur, ertain eta luzeko prozesutzat.*

*Horren harira, proiektu honen barruan, 2013. urtetik gaur egunera garatu diren jarduerak, besteak beste, hauexek izan dira:*

- *Galdetegi baten bidez, Udaleko departamentu bakoitzean zeharkako neurrien diagnostiko bat egin da.*
- *Lan- eta sentibilizazio-saioak egin dira, modu indibidualizatuan, udal departamentuekin, eta hauek proposatutako jarduketekin bi urterako ekintza-plan bat adostu da.*
- *Lan bilerak IZFERekin, bere informatika aplikazio desberdinen barruan sartzeko sexuaren, adinaren eta jatorriaren aldagaiak, eta hizkera ez-sexistaren erabilera sustatzeko asmoarekin.*

- Lan-saio bat Idazkaritzarekin, kontratazio pleguetan berdintasun irizpideak eta klausulak sistematikoki txertatzeko.
- Honen harira, aztertu dugu jasotzen diren edo ez berdintasun irizpideak 2014 eta 2015eko kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzaren pleguetan, eta horren inguruan diagnostiko bat egin da.
- Geroztik, Idazkaritzarekin beste saio bat izan dugu, eta dekretu baten bidez, Udaleko kontratazio pleguetan, minimoak diren berdintasun irizpideak (Berdintasun Legeak jasotzen dituenak) sistematikoki pleguetan sar ditzaten onartu da, eta departamendu guztiei helarazi zaie hemendik aurrera irizpideak sartzeko.

2016ko urteari begira:

- Genero-zeharkakotasuna Berdintasunerako III. Planean esku hartzeko ardatz bat da, eta 3 helburu estrategiko eta 24 neurri jasotzen ditu.
- Udal departamentuekin lan-saioak antolatuko dira aurreko ekintza-plana (2014-2015) ebaluatzeko (zeintzuk izan diren oztopoak eta zailtasunak ekintza-plana aurrera eramateko jakiteko) eta bi urterako beste ekintza-plan bat (2016-2017) ere proposatzeko eta adosteko.
- Bestalde, alde batetik, sexu aldagaia erregistro eta eskaera orrietan eta datu basetan txertatzeko lanarekin jarraituko da, eta beste aldetik, hizkera ez sexistaren erabilerarekin.
- Berdintasun irizpideak kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan txertatzeko lanarekin ere jarraituko dugu Bereziki, departamentu hauekin: Gizarte Politika; Giza Baliabideak eta Udal Antolaketa; Ekonomiaren Sustapena; Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zerbitzuak; Merkataritza, Feriak eta Turismoa; eta azkenik, Informatika.
- Berdintasunean erreferente diren departamentuekin, hau da, Kirolak, Kultura, Festak eta Gaztedia udal departamentuekin, datuak sistematikoki jasotzeko prozedura batean sartuko gara, alegia, urtero bildu behar diren udal datuen eta beste entitate batzuetatik eskuragarri dauden datu estatistikoen zerrenda zehatz bat ezarriko da, sexuaren, adinaren eta jatorrizko herrialdearen aldagaiak txertatzeko (III. Planaren 1.2.2.4 neurria).
- Eta departamentu horiek antolatzen dituzten aktibitate guztietan aldagai horiek kontuan izatea nahi da.
- Departamentu horien artean proiektu estrategiko bat garatzea ere proposatzen da, emakume gazteei zuzendua, hain zuzen ere.
- Estrategia honekin bukatzeko, prestakuntza plan bat proposatuko da, 30 ordukoa, bi urtetan emateko. Formazioa, Likadi enpresarekin egitea proposatzen da.

Beraz, dokumentu honen helburua da, batetik, legislatura honetan ere genero zeharkakotasunaren estrategia aurrera eramango dela, eta eratu ziren lan batzordeak eta batzorde horiei ezarritako funtzioen konpromisoak berrestea; eta, azkenik, 2016rako antolatu diren jarduerak onartzea.”

- ... Onintza Lasa Arteaga (EHBILDU):”Egunero-egunero egin behar diren gauzak dira, eta hemen publiko esan ondoren, aurrera egitea egokitzen zaigu. Baiezkoa emango dugu”.
- ... Olatz Peon Ormazabal, alkatea: “Udal politikan genero zeharkakotasuna txertatzeko estrategiak beharrezkoak dira eta askotan ez dira errazak izaten, askotan ohitura aldaketak suposatzen dutelako. Hala ere, Udalak, Administrazio bezala, eredu izan behar du eta, gainera, pentsatzen dugu administrazio jarduera aberastu egingo dela. Zeharkakotasuna landu beharreko beste gai batzuk izaten dira eta agian genero izan daiteke ispilu, beste gai bat zeharka ahal izateko.”



-----

Udal politiketan genero-zeharkakotasuna ezartzeko eta sustatzeko proiektua, 2013ko uztailaren 23ko Osoko Bilkuran onartu zen. Proiektua garatzeko eta haren jarraipena egiteko, Lan batzordeak sortzeko eta haien eginkizunak ezartzeko barne arautegi bat ere onartu zen.

Lan-ildo hau hasieratik bertatik jo zen epe labur, ertain eta luzeko prozesutzat, zeinaren azken helburua den sortzea beharrezko gestio, administrazio eta egitura-baldintzak genero-ikuspegitik txertatu ahal izateko politika publikoen diseinuan eta garapenean; azken helburua delarik emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasunera iristea.

Horren harira, proiektu honen barruan, 2013 urtetik gaur egunera garatu diren jarduerak, besteak beste, hauek izan dira: Galdetegi baten bidez udaleko sail bakoitzean zeharkako neurrien diagnostiko bat egin da. Lan eta sentsibilizazio-saioak modu indibidualizatuan udal sailekin egin dira eta hauek proposatutako jarduketekin bi urterako ekintza-plan bat adostu da. Lan bilerak IZFErekin; bere informatika aplikazio desberdinen barruan sartu zitzala sexu, adina eta jatorria aldagaiak, hizkera ez sexistaren erabilera sustatzeko asmoarekin. Lan-saio bat kontratazio mahaiarekin, kontratazio pleguetan berdintasun irizpideak eta klausulak sistematikoki txertatzeko. Honen harira, 2014 eta 2015eko berdintasun irizpideak kontratu, hitzarmen eta diru laguntzen pleguetan jasotzen diren azterketa egin dugu eta horren inguruan diagnostiko bat egin da. Gaur egun, kontratazio mahaiarekin beste saio bat izan dugu eta, dekretu baten bidez, Udaleko kontratazio pleguetan, minimoak diren berdintasun irizpideak (berdintasun legeak jasotzen dituenak), sistematikoki pleguetan sar ditzaten onartu da eta departamendu guztiei helarazi zaie hemendik aurrera irizpideak sartzeko.

Hori horrela, Berdintasun Batzordean 2016ko otsailaren 17 jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Udalbatzak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehenik:** "Tolosako Udal Politiketan Genero - Zeharkakotasuna Txertatzeko Estrategia" deituriko proiektua, Berdintasun teknikariak idatzia, berrestea.

**Bigarren:** Erabaki honen berri Berdintasuna sailari ematea.

Besterik gabe, gaueko 20:50etan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 20:50 horas de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA